

9. KOSTU EGITURA

Gure enpresan garraiorako kamioiak erabiliko ditugu. Berez, kamioiak ez dira kostu bat izango, Ikerrek, bazkide batek, aldez aurretik proportzionatuko dituelako.

Izatez, kamioiak hainbat kostu ditu, hala nola, kamioiaren segurua ordaintzea istripuren bat gertatzen bada. Aipatutako kostuak, kostu-finkoak dira.

Gure enpresa langileak ere behar izango ditu kaimioi hauek gidatzeko. Orduan haiei



ordaindu behar zaie hileru baina kostu hau aldakorra izango da, haien soldata produkzioaren araberakoa izango baita. Gure kamioiek erabiliko duten gasolina ere kostu aldakor bat da, bukatzen denean erregai depositua

bete behar dugu baina ez da gauza finko bat.

Gure enpresa hasi berria denez ez ditugu bezero asko baina etorkizunera begira, gure helburua merkatua zabaltzea da, eta orduan ekonomia-eskalak aprobetxatzea.